

Bertsolari gazteak indartsu datoz

Arrigorriagan jokaturako Bizkaiko eskolarteko bat-bateko finalisten artean Amaiur Atxa Areatzakoa egon zan. Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak antolatutak diren eskolartekoa. Aurten 27 parte hartzaile egon dira bat-bateko txapelketan. Finalean Igor Menika Arantzazukoa ibili zan aurkezle beharretan.

Idatzizko txapelketea osteran, online egin dabe aurten Bizkaiko gazteak. Guztira 97 parte hartzaile egon dira eta sarituen artean Arratiako sei dagoz. **12. orrialdea**



Aldape eta Atutxa txapeldun Bizkaiko Binakako Aizkora Txapelketan

11. orrialdea

Bruno Soto Espainiako halterofiliako txapeldun

Lemoaztarrak junior mailan hiru urrezko domina lortu ditu, arrankadan, denpora bitan eta guztira.


Hamasei urte ditu Bruno Soto Fernandezek eta bere pisuko junior mailan, hau da 20 urte baino gutxiagokoa irabazi eban urri bigarrenaren 17an A Coruña jokaturako Espainiako Txapelketea. Bere kategoria 89 da; hau da, 81 eta 89 kilo artean pisatzen dabenen kategoria. Arrankadan 115 kilo altxau ebazan eta denpora bitan 149 kilo. Hirugarren dominea, guztira 264 kilo altxau ebazalako izan zan.

Bere gurasoen bidetik doa Bruno Soto gaztea, Iñaki Iturbe eta bere aita dituala entrenatzaile. Ama, Emilia Fernandez munduko txapelduna izan zan junior mailan eta aita, Bruno José Soto, hamahiru bider izan da Espainiako txapelduna, besteak beste. **8. eta 9. orrialdeak**



Hamaiketean etxera

COVID-19aren positiboak etanbarik igo dira hamabostaldi honetan, baita ospitaletaratzeak be. Hori dala-eta, neurri murriztaileak hartu ditu Eusko Jaurlaritzak. Oin, salbuespenak salbu, ezin da gaubeko 23:00etatik goizeko 06:00rak arte kalera urten. Norbera bizi dan herritik urtebe galarazota dago ez bada lana, ikasketak, zaintza edo antzeko jarduera baterako, eta hori egiaztatu behar da, baina muga egiten dabenen herrien artean batetik bestera joan daiteke zenbait kasutan. Eta ezin dira 6 persona baino gehiago alkartu espazio publiko zein pribaduetan. Ostalaritzan be gogortu ditue neurriak, aforoak murriztuz, barbarako.



Herri batetik bestera ezin danez ibili, Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak atzeratu egin ditu, data barik, ekintza guztiak. **5. orrialdea**

IGORRE

Kiñu Gaztetxeak kanpaina bat hasi dau eraikuntza itxi behar ez izateko

Gaztetxearen arabera, Sabadell bankuko Solvia etxe agentziak, Kiñu Gaztetxeak erabilten dauan eraikuntza itxi dagien kaleratze prozesua abiatu dau. Herritarren eta erakundeen babesa lortzeako kanpaina bat ipini dabe martxan Kiñukoak. Herritarrek Gaztetxearen egitekoa zenbat baloretan daben be jakin gura dabe eta sinadura bilketa batera ekin.

Momentuz kaleratze prozesua bera ez da abiatu, aurretiko diligentiak egiten dabiz. Igorreko Bake Epaitegian eta Durangoko epaitegian aurkeztu behar izan dira Kiñukoak. **7. orrialdea**

Eskolea eta institutua ziberjazarpenaren kontra

Online teknologiak modu kritiko eta arduratsuan erabilten ikasteko, formakuntzea jasoko dabe ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Jentearren arteko hartu-emonak pantailen bidez egiten dirala jaubetuta, modu egonkorrean emon gura dabe formakuntza hori. **7. orrialdea**

EKIN eraiketak

30 urte beharretan

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)

eraiketak@construccioneseKin.com

IGORRE

ZEANURI

Ipiñaburuko gaztaia, onenetan onena

Azken hamar urteetan Ordizian gaztai txapelketea irabazitako gaztandegien arteko lehiaketan, Ipiñaburuko Jon Etxebarria eta Puy Arrieta gaztaigina, gaztai bi aurkeztu ebezan, lehenengo eta bigarren saria lortuz. Gainera, 8,5 puntu baino gehiago lortzean dituan gaztaiari emoten jakon urrezko garaiak be irabazi eben. **5. orrialdea**

agoa
hagin klinikea

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre - Bizkaia
T. 94 631 50 39

Kolegiatu Zenbakia: 900
R.P.S. 31/06

Literatura txokoa

IBAIERTZEKO IPUINA

Oihane Amantegi idazle zornotzarrak liburu ederra idatzi dau. Izenburuak berak dinoan moduan ipuina da, ipuin luzea. Euskera dotorean idatzitako liburua da, samurra eta gozoa. Benetan gozoa, lehenengo atala tupelo eztiari buruzkoa da-eta, Van Morrisonen abestiaren izenburua (*Tupelo honey*) oinarri hartuta. Ama baten eskuak ekoizten dabene eztiaren deskripzioa da, eta ezitasun horrek janzen dau liburua hasikeratik amaiera arte.

Ama hori haurdun gelditu da, eta ume bikotxak daukaz sabelean, neska bi; baina erditzeko orduan bata bizirik jaio da, eta bestea hilda. Bizirik jaio dan umea konziente da ahizta hilda jaio dala, eta min hori aldean eu-

kiko dau ahizta ibaiertzean topau dauan arte. Hilda dagoan ahizta txalupa baten etorri da Karontek lagunduta, eta ibaia zeharkatzeko txanpon bat emon beharko deustso Karonteri. Ahizta bien arteko harremana luzea izango da, bien arteko olgeta hasiko da, Karonte bera be lagun. Bizirik dagoan txanpona lortu beharko dau hilda jaio zan ahizteari emoteko, horrek Karonteri ordaindu deion. Azkenik, istorio guztietan gertatzen dan moduan agurra etorriko da, baina agurra ez da latza izango; ahizta biak onartutako agurra izango da.

Liburua irakurrita galdera bat etorri jatan gogora: umeak ba ete daukie heriotzearen konzientzia? Ba... bai antza; jaio ez danak he-

riotzea zer dan jakin ez arren.

Moskitoak zizt egin eta hareen ziztadak zeharkatu egiten gaitue. Bada, Estankonaren moskitoak bardintsu egin eta luzerako errastua itxiko dau gudan.

Rafa Ugalde



Oihane Amantegi Uriarte

Ibaiertzeko ipuina

Elkar argitaletxea, 2020

100 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 2tik 8ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 9tik 15era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 16tik 22ra

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atubxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioria

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu,

Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia

(Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga

(Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



zertu
kultur elkartea

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Karabi



Karea egiteko labeari esaten jako karabi (Igorren), karabai (Diman) edo karabei (Zeanurin; kárabeye, ahoskatuta). Batuan, karabi erabilten da. Zulo biribil eta sakonean egindako labean, kareharria berotu eta egosi egiten da karea sortuteko. Lanbide hau gizarte tradizionalan oso zabaldua egon zan, horregaitik, gaur egun be, euskal basoetan hainbat karabi aurkitu leitezke. Gure inguruetak karabiak frantses-karabiak dira: beheko barrenean ikusten da zuloa eta gainean labea dago. Beheko zulo horretatik palea sartu eta produzidutako karea bertatik ateraten da.

ERETXIA

Kiñuz, Gaztetxea defendidu!

Sabadell Banketxearen eta Solvia propietade-agentziaren interes ekonomikoak Igorreko Kiñu Gazte-
txearen etorkizuna kolokan ipini dabe. Ebatzi judzialen menpe dago kaleratze eguna eta agindua. Asanbladeak erabagi dau espekulatzailen interes ekonomikoen gainetik, herritarren eskubide kolektiboak eta honeek garatzeko eraikina defendidutea.

Barri txarrak alde batera itxita, Kiñu Gazte-
txearen indarra eta jarraitzeko errazoa atzen sei urteotan eregi dan instituzino herrikoia da. Lehen lerroan Arratiako gazteria. Hilero hazten dan talde ugaria saretu da. Hainbat idea eta gogoren topalekua, herritarren beharrianai erantzuna emoteko tresna. Autogestiona, auzolana eta ikasteko gogoia dira Kiñuko asanbladearen helburuak beteteko armak.

Helburu horreek argiak dira, praktikan frogatu da podere ekonomiko eta politikoetatik kanpo hezte posible dala. Arratian kultura sustatzeko leku faltea dago, eta gaur Igorreko Gaztetxea eredugarria da. Euskerea, musikea, antzerkia eta kirola Kiñuren egunerokotasunean dagoz. Aisialdi alternatiboa garatzea da helburua. Herritarren aisialdirako jai, ikuskizun eta formazio eskuragarriak sortzeako errespetuzko espazioa. Hori hurrengo helburua lortzeako ezinbestekoa da: tokiko garapena; garapen soziala eta ekonomikoa. Kulturaren langile eta ikastaroen irakasleentzat lanpostuak sortu eta Igorreko negozioentzat laguntza be bada. Baina batez be, Kiñu alkarte askoren sorleku eta egoitzea da, eta beste askoren batzeako lekua. Zaztaparrak, Arratia Bizirik, Igitie, Goi Tentsiorik Ez, Torontile, Arantzarte, Bertso Eskolea, Guraso Elkarte eta beste guztiai esker garatzen da egunero Arratia. Gazterien proiektu eta nahiak antolatzeko



KIÑU GAZTETXEA

bizi da Kiñu. Ikasi, esperimendu eta arratiarren beharrianai aurre egiteko. Horretarako okupau zan urte luzez erabili bako eraikin abandonau. Lanordu askoren ostean herriak eraikin erabilgarria dauka gaur, baina Sabadell bankuaren interes pribaduen erruz aurreko egoerara bueltetako arriskuan dago Gaztetxea. Pribatizazio garaietan, Igorreko zerbitzu publikoen ardatza dan eraikina osututako prest dagoz. Ez da ahaztu behar, kiroldegien eta Kultur Etxearen kudeaketea ez dala guztiz publikoa. Enpresa pribaduak kontratauz funtzionetan dabe eta. Herritarrek antolatutako zerbitzu publikoak harreman ekonomiko

mikoetatik kanpo garatzen dira, Beraz, Sabadell moduko inbersino-funtsak honen aurka dagoz, errazoi hori eraikinaren propietade dokumentuen gainetik dago. Baina krisi garai luze honetan, inoz baino gehiago, beharrezkoa ikusten dogu gure ekinean jarraitzea. Ez dogu Kiñutik ospa egingo, inor Igorretik joan behar bada, hori Sabadell da.

Publikoa eta herritarrona dana desegiteko orduan putreak agertzen dira: inbersino funts eta propietade agentziak. Oingoan Sabadell banketxea eta Solvia dagoz Kiñuren gainetik bueltaka. Ez dabe eraikina erabilteko alternatibarik aurkeztu, negoziatu edo gitxienez abisau, eta ez dira asanbladeagaz komunikau. Igorreko Udalaren diru zati bat gordetzen dauan bankuak ez dauka herritarronganako errespeturik. Entidade pribadu horrek instituzino judicial eta polizialak daukaz ondoan, Kiñuk auzotarren indarra eta errazoa. Eraikina jarraian saldu edo espekuletako bada be, Sabadellen interes bakarra ekonomikoa da. Aisialdi alternatiboa eta herritarren antolaketa autonomoa diru eta paperen gainetik dagozan eskubide kolektiboak dira. Krisi garaietan, inoz baino gehiago defendidu behar diran eskubideak.

Okupofobiari ez. Okupazioa kriminalizetako kanpaina mediatikoaren aterpean, entidade pribadu eta jaube dirudunen interesak dagoz ostonduta. Estatu mailan 3 miloe eta erdi etxebizitza hutsik mantentzen dira, 40.000 persona etxe barik dagozan bitartean. Gainera, gazteak etxebizitza eskuratzeko aukerak urtero gitxitzen dira. Beste alde batetik, Kiñu moduko espazio autogestionauek hutsitu gura dabez. Gazteak beteten dabezan beharrian sozialai begiratu barik boltsikoak bete eta auzo zein herriak kultura barik itxi. Merkataritza gune eta makro-diskoteketan gura gaitue, gure kontura antolatzeako alternatibak zapalduz. Horren aurrean Kiñuren apustua herria modu kulturalan eta sozialean garatzen jarraitzea da.

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begi tentsinoak
Lentilen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabalno Arana 3, 48140 ICORRE (Bizkai)
☎ 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Kili-Kili
Amopu eta Puzutuburu
Lehendakoa Agite 10 - ICORRE (Bizkai)
Tel.: 94 673 43 81

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Galdar 666 58 20 06
Puzuta polygona, 10 LEMOA • beeretxiki@gmail.com

LUMATUTEN

JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA

Diziplina

Lehen, gaur zein gero, diziplina beharrezkoa dogu gizakion errespetuzko alkar bizibiderako. Mundua aurrera doan neurrian geroago eta asmaketa modernoagoak bizi doguz baina, giza baloreak jagon eta bete egin behar dira gehiago edo gutxiago kostau arren. Diziplina kontzeptua, guk euskaldunok, hezi berbeagaz adierazten dogu, personentzat zein animalientzat. Hezi barik dagoanari, hezibakoa, esaten deusagu. Hezita egoteak horixe eskatzen dau: diziplina. Berba hau, latinetik hartu dogu. Latinez *disco* aditzak, ikasi, esan gura dau euskeraz. Hortik latinez *discipulus* daukagu, ikasle, euskeraz. Ikaste bide horretarako, hor daukagu latineko *discipulina*, *disciplina* gaztelaraz eta diziplina, mailegua, euskeraz. Jatorriz, diziplina, latigo tresna bat zan, hau da, asta bateri deusala kordelezko edo uhalezko tira bat edo ge-

hiago lotuta, zeinda, gure txibitearen antzekoa. Tresna horren helburua zera zan, abereak eta zoritxarrez, garai baten, pertsonak be latigazoz hezitea edo eta zigortzea. Talde erlijioso batzuek penitentzia gisa be erabilten eben diziplina tresna hori, zilizioagaz batera. Gero-gora, eskola batzuetan kasurako, makilak-eta erabilten ziran zigortzeko. Esakereak dinoan lez, maisu-maistrak palukazoka jotzen hasten ziranean "txibitea atera" esaten genduan eta eskuaz kokotekoak emotea zanean "bazpiak erantau". Urteak aurrera egin ahala, eskoletako irakasleen "astakeriak" aldatuz joan dira eta gaur egun, diziplina kontzeptua, pertsonen portaera arauetara bilakatu da. Etxe barruetan be, asko aldatu da zigortze kontua, batzuetan permisiboegi jokatuz gaztetxoek kalterako. Gogoratu esakerea "Umearen zentzuna etxean entzuna". Baina, mundua mundu danetik eta batez be gaur eguneko mundu aldakor eta konplikau honetan, ezinbestekoa dogu zentzunezko diziplina, gaur batez be, COVID-19 mantzin hori gainditzeko. "Zer ikusi ha ikasi".

ZERTZEAN



MARIA ATUTXA

Gaia jarrita: "Lagunak"

1

Bizitza zer liteke lagun onik gabe? Momentu txarretan beti gure alde batzutan psikologa lana eiten dabe maitasuna emoten deuskue debalde.

2

Juergak eurekaz eta batera oporrak lagunik bako gabak horrik bai gogorrek hain abenturazale (e)ta hain ameskorrek hezur eta haragiz e(g)indako altxorrek.

3

Bueltatuz ezagutu nebazan aldira ezkatu ezinik begien dirdira askotan pentsatzen dot eurei begira "geuk aukeratzen dogun familia dira".

4

Txiki txikitotatik euki dodazanak eta bizitza zehar agertu direnak hurbil sentidu arren urrin dagozenak pilo bat, izugarri maite dodaz denak.

5

Ezinezkoa da hau dana ahaztutea, gure arteko magiak inderra galtzea lortu dogu batera hainbeste ikiste orain gauzen lekura eskutik heltzea.

6

Zuen laguntasune neurea suertea sarritan kostau arren hauxe esatea: zein ederra dan alkar hazten ikustea jakinda alboan egin dogula bidea.

BEGI TXINDORRA

Zaintza, osasuna eta hezkuntza publikoen aldeko aldarria egin eben urri bigarrenaren 28an, 25 lagun inguruk Artean. Izan be, zerbitzu publikoak beharrezkoak dira beti jente guztiaren bizikaldia bermatzeko. Egiturazko krisi honetan, inoz baino gehiago.

Ezin esan jentetzea bildu zanik, nahiz eta seguruenik asko izan zerbitzu publikoen garrantziaz jabetzen diranak. Baina indarrean zan herrien arteko mugak zarratuten dauzan dekretua. Indarrean, COVID-19a ez hedatzeko beste neurriak: distantziak eta maskarak, berbarako. Indarrean, hedabideak sortutako kutsatzeko bildurra; indarrean, jentea ez kutsatzeko erantzukizuna; indarrean, batzuen tristurea eta etsipena... Indar asko eta handiak, protesten kontra.

COVID-19a dala-eta hartutako neurriak handitu egin dabez mota guztietako desbardintasunak. Eta osasuna, zaintza eta hezkuntza eskubide, eta ez pribilegio, izan daitezkan, kalidadezko zerbitzu publikoak ezinbestekoak dira. Itxialdian, konfinamentuak hori irakatsi euskula irakurri genduan behin eta barriro sare sozialetan.

Askok dakie hori, bai, baina batzuk baino ez ziran bildu aldarrikatzeko. Dana kontra protesten kontra dagoalako eta pribatizazioen alde.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elizasko, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 54 62 - 808 884 018

Lehenbiziko Agiri II
Erroitz
Agiriaren gaurtik aurrera.

ZEANURI

Ipiñaburu gaztandegia txapeldunen txapelduna eta Urrezko garaikurra

Azken hamar urteotan Ordizian gaztai txapelketea irabazitako gaztandegiak izan ziran lehen.

Ipiñaburuko Jon Etxebarria eta Puy Arrieta gaztaingak, gaztai bi aurkeztu ebezan, lehiaketa bitan, 2012an eta 2015ean, irabazi ebelako txapelketea. Gaztai bi aurkeztu eta biak saria jaso eben; lehenengo eta bigarren sariak, hain zuzen be.

Erredakzioa

Sari bi honeez gainera, Urrezko gaztaiaren garaikurra be lortu eben Zeanurikoak. Izan be, ikurra 8,5 puntu baino gehiago lortzean dituan gaztaiari emoten jago. Lehen saria jaso eban gaztaiak 9,15 puntu jaso eban; bigarren saria jasotakoak barriz, 8,51 puntu.

Sari banaketea, urri bigarrenaren 14an izan zan, Ordiziako udallexean, COVID-19aren eraginez, atek zarratuta eta ikusle barik. Hirugarren saria, Lekarozeko Kortaria gaztagintzeak eroan eban.

Ipiñaburuko gaztaiak

Ipiñaburukoak gaztai bi aurkeztu ebezan txapeldunen lehiaketa-

ra. Bata zuria eta bestea ketua. Gipuzkoako Goierrian eta Nafarroan, gaztai ketua asko saltzean dan arren, zuriak irabazi eban. Ha-ta guzti be, ez zan sorpresa

izan zuriak irabaztea. "Sorpresabaino gehiago, pozgarria izan zan guretzat; da apur bat, gaztaiaren esentzia puroa erreibindikatzeara" azaldu deutso BEGITURI Puy Arrietak. Bere esanetan "keak ez deutso ez kentzean ez gehitzen ezer gaztaiari, beste puntu bat da". Baina horretan be, justu puntu hori emoten asmatu behar da, eta hori be sano ondo egiten dabe Ipiñaburukoak, epaimahaiak bigarren saria emotean errekonozidu eban legez. Legar naturalagaz egiten ditue gaztaiok, eta Jon Etxebarriak sari banaketan azaldutakoaren arabera, gaztairik onenak egiteko sekretua, "ardiak mimau eta lana gustura egitea" da.



Puy Arrieta eta Jon Etxebarria.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osakidetzako sindikatuak zehazkiaren 12an grebara deitu dabe

Osakidetzako sindikatu guztiak greba deialdia egin dabe EAEko zentro guztietan. Bizkaian, zehazkiaren 12rako da deialdia, osasun publikoaren egiturazko arazoan konponbidea eskatuteko.

Erredakzioa

Sindikatuaren esanetan, "pandemiak larriagotu ditu Osakidetzaren sakoneko eta egiturazko arazoak" eta asmo onak alde batera itxita, ekiteko sasoia dala adierazo eben prentsurrekoan. Osasun langileak, besteak beste, langile kopurua handitzea eta egonkortzea, murrizketa eta pribatizaziorik ez egitea, langileen osasuna eta segurtasuna bermatzea eta osasun publikora aurrekontuaren

zati egoki bat bideratzea eskatzen dabe. COVID-19aren datuak larriagotu ezker, greba deialdia atzeratzeko prest agertu ziran sindikatuak.

Osakidetzak ez dirala murrizketak egin eta Osasun Sailak, "aurrekontu osoaren herena" erabilten dauala dino. Horregaitik, Osasun Sailak, greba deialdia ez dala ulergarria adierazo dau.

ELA, SATSE, SME, LAB, CCOO, UGT, ESK, FAE eta UTEFE dira deialdia egin daben sindikatuak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Alarma egoerea ezarri dabe barriro

COVID-19aren hedapena gelditzeko, Eusko Jaurlaritzak urri bigarrenaren 17an, neurri mugatzaile barriak proposatu eban. Ostalaritzan eukierea erdira jaitsi, gaueko ordutegia murriztu, ekitaldi kultural eta erlijiosoan aforoa ezarri, eta txoko eta alkarteetan jardutea galarazotea proposatzen eban, besteak beste.

Erredakzioa

Gainera, leku publiko eta pribaduetan sei persona baino gehiago batzea galarazotea be egoan neurrien artean. Baina urri bigarrenaren 22an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota eban neurri horreetako bat; hau da, ez eban baimendu gizarte topaketak sei personara mugatzea, "oinarriko eskubideak urratzen ditualako".

Hori dala-eta, neurria legearen barruan hartu ahal izateko, hurrengo egunean Urkulluk, Espainiako presidenteari alarma egoerea ezartzeko eskatu eutsan. Pedro

Sanchezek alarma egoerea ezarri eban Espainia osoan 25ean, eta urri bigarrenaren 26an, Lehendakariaren 36/2020 Dekretua argitaratu zan. Bertan, beste neurri batzuen artean, espazio publiko eta pribaduetan gehienez 6 persona egotera mugatu eta norbera bizi dan herritik urten ezin izatea lango neurriak ezartzen dira.

Herritik ezin urten

Gaubeko 23:00etatik 06:00retara urtetea debekatuta dago. Ordu tarte horretan ezin da ibili espazio publikoan ez bada ezinbesteko kausaren batengaitik, eta hori egiaztatatu behar da. Zirkulazioa

murrizten dituen beste neurri batzuk be badira dekretuan. Izan be, bizileku dan herritik ezin da urten, lana, ikasketak, osasuna, zaintza edo beste preminazko jardueretarako izan ezik; beti be, egiaztatuta. Ha-ta guzti be, muga egiten dabenen herri batetik bestera joan ahal da zenbait kasutan.

Arratian, eskualde mailan, bizitza sozioekonomiko eta kultural handia egiten da eta praktikan, eragin handia dauka herrietatik ezin urteteak edo-eta horren salbuespenak. Hori da, berbarako, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako kasua, "Arratiako andra guztien parte hartzea ezin danez bermatu

ekintza honeetan", dekretua indarrean dagoan bitartean, ez ditu programautako ekintzak aurrera aterako. Holan bertan behera, edo behintzat "atzeratuta" geratu ziran, Morea eta Griseko *Cloudburst* film emonaldia eta *Feminismoa eta euskera* ikastaroa.

Kultur etxeetan, kirol eskoletan eta abar egiten diran ekintzak egin daitezke, baina bakarrik herrikoak edo ondoko herrikoak joan daitezke bertara. Muga egiten dabenen herrien arteko mobikortasuna baimentzen da errazoi sozioekonomikoakaitik edo aire zabaleko kirol jardueretarako, herri mugakideen artean bidea badago.

Zaintzarako ez bada, beste herri baten bizi diran familiakoak bisitatu ezin diran arren, salbuespen dira zahar etxeetan bizi diranak. Egoitzak baimendu daitezke bisitak, egoiliarren ondo izatean funtsezkoak dirala ikusi zan-eta, aurreko konfinamentuan.

Kartzelan dagozanak bisitetako, Espetxe Agintaritzak emondako baimenagaz, EAEtik kanpora joateko baimena be emongo da,

helmugako erkidegoak horretarako aukerea emon ezker.

Hilerrietan jente gitxiago

Neurri honeekaz heldu da aurten Domusantu eguna. Gurean hilerria joateko ohiturea dago, baina aurten, bizi diran herriko ortusantuan edo ondoko herrikoan difuntuak daukiezanak bakarrik egin ahal izan deutsee hildakoiak bisitatu. Gainera, jente pilaketak ebiteko Eusko Jaurlaritzak bisitok aurreratzeko be aholkatu eban.

Positibo tasea

Azken hamalau egunetan izandako positibo tasea da egoerea neurtzeko erabilten dan datuetako bat. Hiru tramu bereizten dira 0 eta 249 positibo 100.000 biztanleko; 250 eta 499 artean eta 500 baino gehiago. Zehazkiaren 1era arteko datuen arabera, Bedia (2), Ubide (0) eta Zeberio (2) egozan semaforoaren beheko aldean; Arantzazu (1), Artea (3) eta Dima (5), erdikoan. Areatzak (7), Igorrek (22) Lemoak (30) eta Zeanurik (7) argi gorria biztuta eukien.

ARRATIA

Harribide Fundaziorako izango da tranbia solidarioak batzean dauan dirua

Erredakzioa

Pobreziaren inguruan jentearen konzientzia bizteko helburuagaz, Caritas Arratiak Tranbia solidarioa antolatu dau aurreko hiru urteotan. Aurten be, zemendiaren 14rako antolatuta dago, baina baleiteke beste modu baten egin behar izatea COVID-19a dala-eta Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriakaitik. Antolakuntzakoak hila-ren 11n batuko dira zelan egin ebazteko.

Izan be, Tranbia solidarioa, Arratiako mailako ekintza da, Arratiako tranbiak egiten eban ibilbide bera egiten dau Caritasen tranbia metaforiko honek, dirua batzean. Jasotako dirua Harribide Fundazioak, Areatzan Sakramentinoen etxean daukan proiektu baterako izango da.

Aurten hamaika lagunek eta hiru udalek lagundu dabe ekimena. "Tranbiak", -tranbia moduan



apaindutako furgoneta bat- Be-diatik Zeanurirainoko ibilbidea egiten dau urtero. Helmugako ekitalditxoak egongo da eta Esti eta Olatzen kantaldia. Frontoiko aforoa 220 lagunekoa da eta horren erdia ez litzateke beteko.

Oingo arauak kantaldia baimentzen badabe be, zemendiaren 11n hartuko da Tranbia solidarioa eta ekitaldia egiteko edo bertan behera ixteko ebatzia, momentuko osasun egoera eta arauak kontuan hartuta.

IGORRE

150 personatik gora batu ziran Irune Costumeroren alabea Igoerreko etxera bueltetako eskatuz

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 23an, Irune Costumero eta bere alabeari babesa eta alkartasuna adierazoteko eta umea amarenera bueltetako ekijiduteko batu ziran. Baita, Bizkaiko Foru Aldundiko inputauta dagozan Haur Sailekoak lehenbailehen epaitzeko eta Guraso Alienazino Syndrome faltsua gehiago ez erabilteko eskatzeko be. Arratia eta Arratiatik kanpoko jentea batu zan, baita hainbat herritako udal ordezkariak be.

Izan be, hiru urte dira Audiencia Probintzialak delitu zantzuak ikusi ebazala igorretar honeri umea kentzeako kasuan -ustez GAS sindromea erabilia kendu eutsien umea- eta BFAko Haur Saileko hiru kargu eta langile bat inputau ebazala. Oindino ez da epaiketarik egin eta ama-alabak bananduta jarraituten dabe.



DIMA

Autodefensa feminista ikastaroa 14 eta 18 urte bitarteko neskontzat

Erredakzioa

Dimako Andraizea andra taldeak, autodefensa feminista tailerra antolatu dau zemendiaren 21erako, Emagin taldearen eskutik. Partaide kopurua mugatua izango da eta izena hilaren 9ra arte emon daiteke andraizea@gmail.com helbidean edo 656 791 001 telefonoan.

Tailerraren helburua, neskek egunero jasoten dabezan eraso sexistaren aurrean, zelan erantzun ikastea da. Zortzi ordu izango dira, goizeko 08:00retan hasita, Elexaldeko lokalean. Mosukoia eta esteratoa eron behar dira.



ZEBERIO

Indarkeria matxistaren kontrako lehiaketea ipini dau martxan Udalak

Erredakzioa

Zeberioko Udalak zemendiaren 25a Andren kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazinoarteko Eguna dala-eta, urteroko sensibilizazio eta prebenzino kanpainaren barruan #Indarkeria Matxistaren Aurka lehiaketea antolatu dau. Lanak zemendiaren 20a baino lehen entregatu behar dira udal-txean eta sari banaketea, zemendiaren 25erako dago aurreikusita, 18:00etan, plazako frontoian.

Kategoria bi dagoz, Zubialde eskolakoak batetik eta kategoria zabala beste aldetik. Honetan

adin nagusikoak eta 18 urte ar-tekoak, tutorearen baimenagaz, hartu leikie parte.

Helburuak

Ekimen honek hiru helburu ditu: herritarrak gure gizartean eta gure herrietan indarkeria matxista ezabatzeko preminaz kontzientzietea; sormena tokiko ikuspegi feministatik sustatzea, eta ahal-duntze indibiduala eta kolektiboa bultzatzea.

Balioen transmisinoan, adierazpen artistikoa funtsezko tresnatzat jotzen dau Udalak, errealidade hori eta haren eraldaketea aztertzeke.



IGORRE


Hitzarmen kolektiboa adostu dabe Tecnichapan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 26an greba mugabakoa hastekoak ziran Igo-rreren dagoan Ormazabal-Velatia taldeko Tecnichapako beharginak, baina akordioa lortu eta bertan behera itxi eben greba. Tec-nichapan 160 beharginek egiten dabe behar.

LAB sindikatuak jakitera emon-dakoaren arabera, akordioak beharginen aldarrikapenak jasoten ditu soldata igoereari jagokonean eta kategoriak ezartzeko erispide objektiboak ipini dira.

LABek ondo baloretan dau akordioa, "proposatzen ziran murrizketak desagertzen diralako eta enpresearen jarkerea aldatu arazo daualako". Enpreseak "Covidak eragindako egoeraz baliatu eta



taldeko beste enpresa bateko akordioa inposatu" gura eban, sindikatuaren arabera, baina beharginen burrukak frogatu dau "patronalak hedatu gura dauan bildurraren aurrean, burrukatzek merezidu dauala eta lan baldintzak hobetuteko aukerea badagoala".

IGORRE

Herriaren eta erakundeen alkartasuna bilatuko dabe, Kiñu Gaztetxeak jarraitu dagian



Erredakzioa

Sabadell bankuko Solvia etxe agentziak, Kiñu Kultur Elkartek, Gaztetxe lez erabiltzen duan erakina itxi dagian kaleratze prozesua abiatu dau. Gazte asanbladeak bere proiektua defenditu gura dau eta horretarako herritarren eta erakundeen babesa funtsezkoa dala eretxita, Gaztetearen aldeko sinadura bilketeari ekin deusie.

"Gure proiektu soziala garatzeko daukagun lekua kendu gura deuskue. Sei urte dira espazio autogestionau honetan auzolanaren bidez, kultura indartu, alkarte herrikoiai babesa emon eta arratiarrentzat gure etxea zabalduen ibili gara" dinoe Kiñukoak komunikatu baten.

Momentuz prozesua bera ez da abiatu, aurretiko diligentsiak egiten dabiz. Igorreko Bake Epaitegian eta Durangoko epaitegian aurkeztu behar izan dira. Kiñukoak debaldeko justizia zerbitzua eskatu dabe prozesuari aurre egiteko.

Hiru ardatz

Gaztetearen defendeari hiru ardatz landuz ekingo deusie. Lehenengoa komunikazioa da. Jenteari informazioa heldu arazo eta atxikimendu eta babes bila. Sinadura bilketeagaz asanbladakoak jakin gura dabe ea "herriak eta bailarak" Gaztetea euren egunerokotasunean inportante jotzen daben edo-eta erabilgarria ikusten daben. Holan bada, mozino bat sartzeako asmoa be badaukie udalari be babesa eskatzeko, "uste dogulako, azkenean giltzea edo arazo honeri amaierara emoteko modua, instituzinoak daukiela" azaldu deutso BEGITUri Karmelo Usategi Kiñukoak.

Indarrak be jarriko ditue ekintzak antolatuten. Hori izango da bigarren ardatza. Kultura indartzea da proiektuaren helburuetako bat eta Kiñu bizirik dagoala, bertan badagoala mobimentua eta aktibitatea erakutsi gura dabe. "Urte honeetan Kiñu beti egon da zabalik eta espazio hau zabalik eukiteak ekarri dau ekintzak egitea. Zumba, Crossfit, kontzertuak eta abar. Oin hau indartu gura dogu". Horretarako agenda bat prestatu dabe eta aste birik behin, barikuetan, kontzertu, berbaldi, jokoen gaua edo beste ekintzaren bat prestatuko dabe.

Eta hirugarren frentea erresistentzia izango litzateke. Horretarako, eskuorriak banandu, pankartak egin eta sareetan "kaina" emoten dabilzela dino Kiñukoak. Hau danau egiteko, erresistentzia kutxa bat be egin gura dabe. Izan be, euren diru sarre nagusia, jaietan ipinten daben txosnea izaten da eta aurton ez da jairik egon; eta horko diru sarrerarik be ez, beraz.

Solvia eta Banco Sabadell

Kiñu Gaztetea, 2013ko urri bigarrenaren 16an "okupau" eta 2014ko apirilaren 26an, inaugurau zan. Asanbladakoak akordio batera heldu ziran jaubeakaz, eraikina erabili eta "zaindu" egingo eben. "Jaubeak trankil egoteko, aseguru bat kontratau genduan erantzukizun zibila kubriduteko" eta kontratua automatikoki barritzen zan, asanbladakoak akordioa bete bitartean.

Handik hiru bat urtera, Banco Sabadellen Solvia etxe agentziak enbargau eban Kiñu Gaztetearen jaube zan enpresea eta bere aktibo guztiak Banco Sabadellera pasau ziran.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

2021.ean ez da 22. Korrika egingo

2021.eko martian zan hastekoa 22. Korrika, baina, pandemiaren barruko transmisioa ahalik eta gehien murrizteko, AEK-k, atzeratzea ebatzi dau eta, ondo bidean, 2022an izango da.

Erredakzioa

Izan be, Korrika bera garrantzitsua izan arren, oindino garrantzitsua-gotzat jotzen dabe Korrika, oingo baldintzak baino hobetan egitea. "Ez dogu Korrikaren ordezko eskas bat gura" azalduen dau AEK-k bere webgunean.

Korrika euskerearen aldeko ekitaldirik jentetsuena da, eta jentetsua izatea da Korrika beraren izana. Korrikak "kalea behar dau, bizia, mobimentua". Horregaitik, AEK-k denpora gehiago hartu gura dau, normalidade barria nondik nora joango dan ikusteko, eta, "ondo bidean, egoera hobetzen bada, danok desiratzen dogun Korrikara helduko gara, 2022. urteko udabarrian".

AEKrentzako golpe ekonomikoa

Korrikaren helburuetako bat eko-



Igorreko Kubulu euskaltegia.

nomikoa da, AEKren euskaltegiak lagundutea, hain zuzen be, eta Korrika atzeratzeagaz AEK-k golpe ekonomikoa handia sufriduko dau.

Izan be, AEKren arabera, norabide egokian pausak emon badira be, Administrazioak euskaltegi bideratutako laguntzak ez dira nahikoak.

IGORRE

Institutu eta eskolako ikasleak online teknologiak modu kritiko eta arduratsuan erabiltzen ikasiko dabe

Gazteak pantailak erabiltzen daben moduagaz arduratuta, Arratia Institutuan eta Igorreko eskolan, internet modu egokian erabilteko formazio emongo dabe.

Erredakzioa

Pantallas Amigas enpresea arduratuko da eta Igorreko Udalaren laguntza izango dau.

Institutuko maila guztietan ordu biko tailerra izango dabe eta 16 urtekoak eskolan emongo dabe formakuntzea. Institutuko maila guztietan tailerrak egindakoan, hausnarketea egin eta martiaren bueltan beste saio bat egitea ala ez ebatziko dabe.

Urtero formakuntza hau egiteko asmoa agertu dau Galder Olibares institutuko irakasleak, hau da, modu egonkorrean egitea. Guraso eta irakasleak be jasoko dabe eurentzako formakuntzea.

Hartu-emonak online

Gaur egun, jentearen arteko hartu-emonak pantailen bidezkoak izaten dira askotan. Hartu-emon

horreetan bizikidetzaren balore positiboak transmitidutea gura dabe irakasleak eta hori be ikasi egin behar da. "Hizkuntza desbardin bat da, tratetako beste modu bat. Ez dago arpegiaren espresinorik, ez tonurik... eta askotan txarto ulertuak egoten dira" dino Olibaresek.

Formakuntza honegaz, ziberjazarpena prebenidu; pentsamentu kritikoa eta enpatia garatu; gelan bertan dagozan arriskuak eta arazoak indentifikau; Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera sustatu eta nerabeen parte hartzea bultzatzea gura dabe programa honegaz.



BRUNO SOTO FERNANDEZ

Bruno Soto Fernandez lemoaztarrak urrezko hiru domina irabazi dauz Espainiako Halterofilia Txapelketan

Urri bigarrenaren 17an jokatu zan A Coruñan, junior mailako Espainiako Txapelketea. Hamasei urteko lemoaztarra izan zan irabazlea 89 kategorian, hau da 81 kilo baino gehiago baina 89 baino gutxiago pisatzen dabenen kategorian. Arrankadan 115 kilo altxau ebazan eta denpora bitan 149 kilo. Hirugarren dominea, guztira be sailkapenean lehenengoa izan zalako irabazi eban. Hau, modalidade bietan egindakoaren batuketea da, 264 kilo. Lehia estua izan zan. Izan be, bigarrenari, Alvaro Jimenezeri kilo bakarra atera eutsan Sotok.



Bruno Soto.

Erredakzioa

Hamahiru urtegez hasi zan Soto halterofilian eta 14 urtegez, Espainiako txapelketea sub-15 eta sub-17 be irabazi eban. Bere edadeari jagokona baino apur bat harago doa beti lemoaztarra. Oin be, sub-17 izan arren, juniorra, 20 urte arte, irabazi dau eta.

Gazte hasi zinan halterofilian...

Bai, txiki-txikitan hasi nintzan. Gurasoak entrenetan ziran eta gimnasia eroaten ninduen. Nik han emoten neban denporea eta, imitauz, zeozer egiten neban, makila bategaz edo. Teknika begiratu neban baina ez nintzan entrenetan.

Koxkortutakoan, uger egiten, errugbian eta beste kirol batzuk egiten hasi nintzan eta 13 urtegez halterofilian hastea pentsau neban. Hamahiru edo hamalau urtegez; "hauze da nire kirola" pentsau neban eta serio hartu neban. Gaur arte.

Klub baten entrenetan dozu?

Basauriko Urbi klubean nago.



Klub txikia da Artunduagako kiroldegian. Iñaki Iturbe eta nire aita, Bruno José Soto, dira nire entrenatzaileak. Klubean gazteena naz eta aurten, neu bakarrik nago estadu mailako txapelketetan.

Gatxa da ikasketak eta entrenamentuak buztartzea. Batxilerreko bigarren kursoa egiten nago eta ez da erraza. Egunero entrenetan dot, eguenetan eta domeketan izan ezik. Entrenamentuak hiru bat ordukoak dira: halterofilia ordu bete t'erdia, baina gero muskulazioa eta luzaketak egiten dodaz ordubete baino gehiago. Gainera oin, COVID-19a dala-eta, ordutegi zehatza dago, trabestu egin da dana.

Dana dala, ni itxialdian be entrenau nintzan. Garaje bat dauka eta han. Ez zan lekuri aproposena, ez dalako laua, aldapatxo bat dauka, materiala be zaharra zan hasikeran, baina sasoa ez

galtzea lortu neban.

Eta Espainiako txapelketea izan arte. Zelan sentidu zinan txapelketan? Lehia gogorra izan zan.

Ni lehia nagoanean, ez dot jakiten, ez nortzuk diran nire aurkariak, ezta zenbat altxatzen dabene. Horregaitik ezin deusut esan, ezta nortzuk ziran nire aurkariak. Podiumera igon ginak baino ez.

Nik ez deutset besteai begiratzin. Hor, oso eginkizun garrantzitsua dauka entrenatzaileak. Berak begiratu dau besteak zenbat altxatzen dabene... esateko neuri zenbat altxau behar dodan. Neuri, altxau egizu hau esaten deuste eta nik altxau behar dot. Hori da nire eginkizuna.

Arrankadan saiatu nintzan 119 kilo altxatzen, errekorra izango zana, baina atzera joan jatan. Beste urte bat daukat saiatzeko.



Euskal Herria Lotea 30 €

6 produktu:

1. Arabako Errioxako ardo beltza
2. Bizkaiko Sokonuko turroia
3. Gipuzkoako solomo ondua
4. Iparraldeko gazta zatia
5. Iparraldeko pateia
6. Nafarroako cherry piperrak, gazta beteak

Bizkaia Lotea



11 produktu:

1. Bizkaiko sagardoa (Urbealde)
2. Txakolina (Arratia)
3. Gurinezko pastak (Enkarterriak)
4. Intxaur-saltsa turroia (Bilboalde)
5. Ahabi txokolatea (Bilboalde)
6. Boletus Edulis (Txorierria)
7. Urdalazpiko Iberikoa (Bilboalde)
8. Txorizo Iberikoa (Bilboalde)
9. Gazta 250-275gr (Arratia)
10. Hegaluzea (Busturialdea)
11. Sagar-gozokia (Lea-Artibai)

50 €

Eko Lotea



8 produktu ekologiko:

1. Arabako Errioxako ardo beltza
2. Kafea
3. Kuskua
4. Shiitake Patea
5. Kakao eta hur krema
6. Marmelada
7. Txokolatzeko galletak
8. Sagar snack-a

28 €

Gabonetan eroan Euskal Herria zure mahaira!

Hamabost lote & otzara mota baino gehiago aukeran!

Baten bati oparitu nahi diozu? Ba guk oparitzeko bideko dirugu! Eta, nahi izamer gero, nahi duzun lekura bidaliko dugu!

Zazpi Haizetara & Euskal Herriko Produktuak
Agirre Lehendakaria 11
94 631 92 43 | zazpihaizetara.arratia@gmail.com

Bai, lehia estua izan zan. Arrankadan bardindu eta denpora bitan kilo bat gehiago altxau neban nik. Bera ni baino zaharra goa da, nik baino 2 edo 3 urte gehiago ditu. Nik ez nekian, lehia estua zala, baina igarri egiten da. Igarri egiten da hasikerako pisuan eta holangoetan.

Hurrengo Europako Txapelketea izango da?

Urri bigarrenaren amaieran edo zomendian egitekoa zan baina ez da egingo. Ez dakit bertan behera geratu dan ala atzeratu egin daben, baina bitan atzeratuta egoan. Online egitea be hartu zan kontuan. Grabauta zuzeneko

bat izango balitz legez. Nagusi mailan egin da txapelketaren bat holan. Baina ez da oso bideragarria, ze ez dago epaile bat dantzat bardina izango dana.

Oingo momentuan ezin da proiekturik euki, zer gertatuko dan ez dago jakiterik eta.

Printzipioz, zomendiaren amaieran, Cadiz-en Espainiako Txapelketea sub-17 jokatzekoa naz. Joateko asmoa daukat eta teoriaran, hori irabaztea errazagoa izango litzateke, oin irabazi dodana 20 urtera artekoa da-eta. Dana dala, niretzat urteko txapelketarik inportanteena zana jokatu eta irabazi dot. Bete dot helburua.

Halterofilia txapeldunen leinua

Bruno Sotoren gurasoak, Emilia Fernandez eta Bruno José Soto, kirol honetako kirolari ezagunak dira.

Emilia Fernandez

Gazte itxi baeutsan be konpetizinoari, munduko junior txapelduna izatera heldu zan Emilia. Asturiastarra bera, gaztetan Rambo ezizenagaz ezetuten eben bere kideak.

Hamabost urtegaz hasi zan halterofilian, beste kirol batzuk egin eta gero. 17 urtegaz Sofian (Bulgaria) Europako Txapelketea irabazi eban, eta 1996an, Savannah-n (AEB) Mundukoan, hiru urreak irabazi ebazan: arrankadan, denpora bitan eta guztira.

2000. urtean halterofilian lehiatzeari itxi eutsan.

Bruno José Soto

Bruno José Soto, Espainiako Halterofilia txapelduna izan da 13 bider eta bitan Europar Batasuneko. Munduko 8 Txapelketetan hartu dau parte eta berea da Espainiako marka absolutua, 220 kilo, oin dala 21 urte egin ebana eta oindino inork apurtu ez dauana. Momentu honetan, halterofilia entrenatzailea da, Bizkaiko Halterofilia Federazinoko presidente eta, Euskal Federazinoko eta Espainiako Federazinoko Zuzendaritza Batzordetako kidea.

ARRATIAKO KALENTURAK

Igin Eratika Lehiaketea

Oinarriak:

1. Lehiaketa honetan hamarrei arteko guraso edo zuzen pertsonak hartzeko bidea parta.
2. Dan gutxiak eragotzale bakoak eta eskeriaz idatzitak izan behariko dira.
3. Danak ipuin esatitak izan behar dira eta DTN AV erakundearen mugatutako bide bidean idatzita aurkeztu behariko dira. Danen luzerria lau eta zortzi orrialde artekoa izan behariko da.
4. Danen ez da egitearen datarik ipuin, izenburua bakoak. Egitearen datarik (Tren-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren izenburua) gutunazal zuzenean bider sartuko dira eta gutunazal honen azalera lurrean ipini dan izenburu bera ipini behariko da.
5. Dan orjinala, hiru kopia, eta egitearen datarik dituen gutunazala bako gutunazal handiago baten sartuta, honako helbide honetara bidaltu behariko da: Zeru Kultur Elkarte, Herriko Plaza 24, 48142 Artea (Bizkaia). Posta elektronikoz bidaltu ezean, gutuak sartuta bi, bat lurreko, beste daberatuta, eta bidaltu helbide honetara: beginu@topagunea.com.
6. Hiru sari emango dira: lehena 600 eurokoa, bigarrena 400 eurokoa eta hirugarrena 250 eurokoa.
7. Danak bidaltzeko azken eguna 2020ko zomendiaren 30a da.

beginu 18

arratia ubide zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako balabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpainan abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagatik **Garena** jabetzean lagun birenzako degustazio menua zuzentzeko dogu abenduan.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu behiko formularioa eta bidaltu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrantearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz ebera doban. Edo e-mailez, bidaltu datuok: beginu@topagunea.com helbidera.

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!

LEMOA 946 31 44 06 ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI 946 31 03 99 BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BANATZAILEA

MASTER
CLIMATE SOLUTIONS

filippini Nilfisk JCB MANITOU CTX CONTAINEX TeknoDidaktika HIKOKI POWER HOUSE GENERGY MASTER INSTANT UPRIGHT

PELOTEA

Arratiako klubak txapelik ez, Dimako Udagoieneko Pelota Txapelketan

Erredakzioa

Dima eta Lemoako klubeko pelotariak ez eben txapelik lortu urri bigarrenaren 16an jokaturako Dimako VI. Udagoieneko Txapelketan. Promesa mailan, Beitia eta Cimadevilla izan ziran irabazleak; Lau t'erdikoan, Arrate Bergara an-

drazkoetan eta gizonezkoetan Legorburu nagusitu jakon Larrinagari.

Lehenengo partiduan, Zornotzako Lagun Onak klubeko Beitia eta Cimadevilla, Lemoako pelota klubeko Enok eta Lazkanogaz neurtu ziran, 22-12 irabaziz.

Arrate Bergara 22-10 gailendu jakon Txumuluxeta klubeko Ainhoa



Ruiz de Infanteri. Ruiz de Infante ez zan gustura sentidu partiduan eta Bergarak erraz irabazi eban. Legorburu eta Larrinagaren arteko partidua be erraz irabazi eban Legorburuk (22-09). Hasikerea gogorra izan bazan be, partidu erditik aurrera, galdakaoztarrak Larrinaga partidutik ateratea lortu eban.

PELOTEA

Hiru pelotari Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketan

Erredakzioa

Laboral Kutxa Emakume Master Cup-eko Lau eta erdiko Txapelketan Arratiako klubetako hiru pelotarik hartzean dabe parte; Amaia Alday dimoztarrak, Ainhoa Romero

lemoaztarrak eta Ainhoa Ruiz de Infante Otxandiokoa baina Dimako Txumuluxeta klubekoak. Antolakuntzearen arabera, aurtengoa edizinoan parte hartzaileena izango da, 92 pelotarik emon dabe izena eta.

Ainhoa Romero zan hiruren artean jokatu behar eban lehenengo. Urri bigarrenaren 24an, Larrabetzun eukazan sub-16ko pilota goxuako finalaurdenak, baina partidua atzeratu egin eben, data barik.

Pelota mistoagaz jokaturako dabe Alday eta Ruiz de Infante. Alday final zortzirenetan sartuko da txapelketan eta Ruiz de Infante bigarren kanporaketan da hastekoa, baina COVID-19aren neurriak dirala-eta, momentuz dana dago geratuta.

GURE HELBURUA
EZ JAKELA EZER FALTA
...ETA BATEZ ERE MAITASUNEZ, MAITASUN OSOZ

JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores

EGONALDI IRAUNKORRAK ETA ALDI BATERAKOAK

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA · tel. 94 631 31 30
www.residenciaparamayoresjandoniz.es

ARRETA OSOA:

- Lagunduta
- Dementziak
- Fisioterapia- errehabilitazioa
- Zainketa aringarriak
- Post-ebakuntza errekupezioa

TALDEA OSATZEN DU:

- Medikua
- Erizaintza
- Fisioterapeuta
- Psikologoa
- Lanbide-terapeuta
- Animatzaile soziokulturala

GAINERA DAUKAGU:

- Ile-apaindegia
- Podologia
- Masajista



begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako
publizitatea diseinatzen deutsu.

Publizitate eskusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizitatea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

MENDIA

Aritz Egea eta Sara Alonso nagusi Aramotzen

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 18an egin zan, Lemoa, Igorre eta Dimatik pasetan dan Aramotz Mendi Lasterketea, COVID-19aren kontrako neurritz josit. Jente pilaketak sailhestea eben helburu antolatzaileak eta horregaitik izan eban erlojupeko formatua batez be. Horrezaz gainera duta zerbitzurik ez zan egon, ezta konsigna ez berbaldi teknikorik, eta dorsalak etxera bialdu ziran.

Dana dala, lasterketea egitea posible izan zan eta maila altuko korrikalariak izan ziran bertan. Guztira 160 dorsal eta danak bi izan ezik, Euskal Herrikoak.

Gizonezkoetan Aritz Egea irabazlearen atzetik Asier Larruzeta eta Oier Aiznabarreta heldu ziran; andrazkoetan ostera Araitz Villa eta Eztizen Duquek lagundu eben podiumean Sara Alonso.

Lasterketarien artean arratiarrak be izan ziran eta lehena Xabier Gonzalez "Errot" dimoztarra izan zan.

2007an jaio zan lasterketa honen "osasuntsu jarraitzen dau" eta antolakuntzea sano pozik dago, berba onak baino ez ditu jaso eta. Eguraldi ona egin eban astegoiaren osoan eta ibilbidea "itzel egoan" lasterketea egiteko dinoe.

Arratiarren sailkapena

- 18.- Xabier Gonzalez (Dima) 01:37:23
- 19.- Jokin Zabala (Bedia) 01:38:07
- 23.- Jon Aingeru Artetxe (Zeanuri) 01:39:02
- 42.- Ekaitz Aierdi (Igorre) 01:45:19
- 46.- Aitor Arbulu (Zeanuri) 01:47:14
- 110.- Mikel Etxebarria (Igorre) 02:08:07

Xabier Gonzalez (atzekoa).



FUTBOLA

Ligea hasi eta eten

Erredakzioa

Bizkaiko Futbol Federazioak COVID-19a dala eta zemendiaren 1eko eta 8ko astegoienetako jardunaldietarako lehiaketak bertan behera itxi ditu, Osasun Sailak epe hori pasauta ebazten dauanaren zain. Ordura arteko Arratiako taldeen emoitza eta sailkapenak honek dira.

Arratia andrazkoak

Arratia A taldeak urri bigarrenaren 18an hasi behar eban ligea Añorgaren kontra baina atzeratu egin zan partidua. Arratiak partidua bakarrik jokatu dau, urri bigarrenaren 24an husna bardindu ebana Urbietan Tolosaren kontra.

Sailkapenean seigarren postuan dago Arratia puntu bakarragaz jardunaldi biren ostean.

Lurreko Lehen Mailako bigarren multzoan dagoan Arratia B

taldea oster hilaren 8ko astegoienean zan hastekoa denporaldia, baina bertan behera gelditu da dana.

Arratia gizonezkoak

Multzo bitan bananduta hasi dabe ligea Lurreko Lehen Mailako Mailan, Arratia lehen multzoan dago. Arratia A taldeak urri bigarrenaren 24an hasi eban ligea Lekeitio taldearen kontra. Partidua Lekeitioan zan jokatzeko baina COVID-19ak han eragindako egoereagaitik Igorren jokatu zan. Arratiak 1-0 irabazi eban. Igorrekoak bigarren dagoz sailkapenean 3 puntugaz.

Lurreko Bigarren Mailan dago Arratia B taldea eta dagozan lau multzoetatik hirugarrenean dago. Hilaren 24an hasi zan ligea kategorian honetan baina Arratiak atsedena izan eban egun horretan. Ligako bere lehen partidua Iruiztaldearen kontra jokatu behar eban, baina egoerak ez deusie itxi.

LemoaHarrobi

Lurreko Lehen Mailan dago LemoaHarrobi taldea eta dagozan lau multzoetatik hirugarrenean dago. Hilaren 24an hasi eban ligea Lemoako taldeak Amorebieta B taldearen kontra, 0-1 irabazita.

PELOTEA

Euskal Herriko Bote Luzea Txapelketako Bizkaia 2 taldea txapeldun

Taldean lau arratiar egozan; Dimako Ekhi eta Lur Ziarrusta, Arteako Mikel Beldarrain eta Zeanuriko Beñat Etxeita.

Erredakzioa

Finala Bizkaiko talde bien artean jokatu zan eta txapeldunorde geratu zan Bizkaia 1 taldean be baegoazan Igorre eta Lemoako pelotariak, Imanol Arrese eta Ibai Cimadevilla, tartean.

Euskal Herriko Bote Luzea Txapelketako bosgarren edizioa

izan da aurtengoa. Lehenengoan ez zan Bizkaiko talderik egon, baina bigarrenetik bosgarrenera beti irabazi izan dau Bizkaia. Igazko txapelketea jokatu ebenak, aurtan talde bi atera gura ebezan. Hori dala-eta, udan hasi ziran batzean pelotari gazteai modalidade hau erakutsi eta entrenetako. Gero talde bitan banandu ziran, talde



biak, aurreko urteetan jokatu-takoak eta barriak osotuta.

Txapelketea urri lehenengoan hasi eta ligaxka moduan jokatu zan. Finala, urri bigarrenaren 17an jokatu zan Itsasun (Lapurdi).

Trinketeko finalak atzeratuta

Ekhi Ziarrusta Dimako pelotaria trinkete final bi jokatzeko zan hamabostaldi honetan. Urri bigarrenaren 22an, kepa Arroitauregi I. Memorialeko finala Abadiñoko Tornosolo trinketean eta 26an, Donibane Garaziko Ehiztarien Txapelketako finala. COVID-19a dala-eta, biak atzeratu ditue data barik.

Abadiñoko finalean, Guichandut dauka bikotekide dimoztarrak eta Arabiourrutia eta Ducassou izango dabez aurkari, finala jokatzen danean, txapela eskuratzeko lehian.

Urri bigarrenaren 26an zan jokatzeko Donibane Garaziko Ehiztarien Txapelketako finala. Dimako Ekhi Ziarrustak eta Getxoko Inhar Ugartek, Darmendrail eta Alcasenaren kontra jokatu dabe finala, amateurak eta profesionalak batzean dituan txapelketa honetan.

AZKOREA

Erredakzioa

Lanak 14 minutu eta 47 segundotan egin ebezan Atutxak eta Aldapek, bigarren egin eben Julen Larrea eta Ioritz Gisasola "Zelai IV."ari (16'04") minutu bat baino gehiago aterata. Hirugarrenak, Aritz Irazabal eta David Naredo (16'34") izan ziran.

Sei bikote egon ziran lehian eta euren artean arratiarrez osotutako beste bat be egon zan; Julen Mendieta lemoztarrak eta Xabier Garcia "Utxu" Dimakoak osotutakoa. Honek seigarren egin eben baina bertan egotea be aitzatzekoa da azkolari lemoztarrak 65 urte ditu eta.

Aitzol Atutxa Sherpa.ai Txapelketa Nagusiko finalean

Azkolariak eurak antolatutako Sherpa.ai Txapelketa Nagusiko finala zemendiaren 29an da jokatzeko, Bilbon. Sei azkolari sailkatu dira finalerako, tartean Aitzol Atutxa.


Finalerdia, urri bigarrenaren 24an jokatu zan Zestoan. Han 10 azkolari neurtu ziran. Mikel Larrañagak egin eban denporarik onena, lanak 18 minutu eta 46 segundotan eginda. Aitzol Atutxak bosgarren egin eban

Aitzol Atutxa eta Unai Aldape dimoztarrak irabazi dabe Bizkaiko Binakako Txapelketea

Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak antolatuta, urri bigarrenaren 25ean, Basauriko

San Miguel auzoko frontoian jokatu zan Bizkaiko Binakako Aizkora Txapelketea. Aitzol Atutxa eta Unai Aldape dimoztarrak irabazi eben txapela.

(20'01"). Iker Vicente (19'31"), (19'51") eta Jon Irazu (21'01") be sailkatu ziran finalerako.



Unai Aldape eta Aitzol Atutxa.

LIBURUA

Ainara G. Goitiandiaren *Cómeme la flor* liburuaren aurkezpena**Erredakzioa**

Andraizea, Dimako andra taldeak antolatuta, zemendiaren 6an, Ainara Garcia Goitiandiaren *Cómeme la flor* liburuaren aurkezpena izango da, 19:00etan, Abaroa aretoan. Liburuak 25 narrazio feminista batzean ditu.

Dokumentazio lan handia

egin dau egileak eta datu asko, zein andren testigantzak dagoz *Cómeme la flor* liburuko narrazioetan. Sexu hezkuntza, andren kontrako indarkeria eta amodio erromantikoa dira narrazioon gaitako batzuk.

Liburua 2019ko zemendian argitaratu zan eta itxialdiaren aurretik ibili zan egilea Arratian liburu aurkezten.

LIBURUA

Guk izeneko hiru tomo argazki argitaratu ditu Aitor Nebredak**Erredakzioa**

Biajeetan egindako argazkiak, esaldiren batez lagunduta, azal gogor eta kalidadeko paperean argitaratu ditu Aitor Nebreda Arratiakoak *Guk* izeneko hiru tomotako liburuan. Hamar urtean munduan zehar, gehienetan bakarrik, bere bizipenak konpartiduteko helburuagaz kaleratu dau urrietan autoekoiztutako liburu hau. Aurrerago, online eta debalde ikusteko aukerea egongo da.

Munduari buelta emon eutsan Nebredak 2008 eta 2010 bitartean. Hasieran lau lagun joan ziran abioiz Hegoameriketara. Bat Kolonbian geratu zan hango batez maiteminduta eta besteak etxera bueltauziran oporrak amaitutakoan. Nebreda ostera, Hego Ameriketatik Txileraino eta handik barriro Ertamerikara eta Kaliforniaraino joan zan. Han abioiz Japoniara eta Japoniatik Indonesia eta Egiptoraino. Handik bueltauzan etxera, 2010 urtea zan. Gero, Afrikara joan da hainbat bider. Liburuan biaje horreetako argaz-

kiak jasoten dira. Liburuak jasoten dauan atzen bidaia, aurtengo urte hasieran Etiopiarra egindakoa da. Euskal Herrian egindako argazkiak be badagoz.

Hiru tomo

Milaka argazki ditu eta gatxena aukeraketea izan dala dino egileak. Hasieran bere asmoa liburu bakarria egitea zan, baina ezinezkoa egin jakola adierazo dau. "Liburu oin hiru urte egiten hasi nintzan, baina bidaiek egiten jarraituten neban eta argazkiak gehitzen. Urte hasieran Etiopian egon nintzan eta ebatzi neban han ipintea azken puntua. Gero konfinamentua aprobetxau neban liburu atonduteko".

Argazkiak atalka dagoz antolatuta: Basamortuak eta ura, Ilarrak eta estalaktiak, Aurpegiak, Animaliak... eta abar. Argazkiak esaldiren batez doaz, zer dan azaltzeko edo momentuan sentidu edo pentsautakoa edo leku horretako esakera baten barri emonez, berbarako. Umorea be ez da falta *Guk* argazki liburuan.



BERTSOLARITZEA

"Kopla barik" bertso zirkuituko saioa Igorren

COVID-19ak eragindako egoera dala-eta, Bizkaiko Bertsolari Txapelketea atzeratu egin da, baina txapelketako saioak egiteko baldintzarik egon ez arren, guztion osasuna bermatuz bestelako saio mota asko antolatu daitezkeza uste dau Bizkaiko Bertsosale Elkarteak.

Erredakzioa

Horregaitik, txapelketea atzeratzeak parte hartzaileengan daukan eragina arintzearen, eta momentu guztiak kulturaz gozatzeko onak dirala eretxita, formatu desbardinetako lau saioz osotutako zirkuitua ipini dau martxan.

Bertso saio musikatu, bertso tramea, sariketea eta jaialdia izango dira zirkuitua osotuko dabena saioak. Bertso trama formatukoa, Igorrenko Lasarte Aretoan izango da zemendiaren 14an, 19:00etan.

Igorrenko saioan, Eneko Abasolo "Abarkas", Txaber Altube,

Miren Amuriza, Julen Arzanegi, Unai Mendiburu eta Jone Uria



BERTSOLARITZEA

Amaiur Atxa Bizkaiko Eskolarteko Bertso Txapelketako finalean**Erredakzioa**

Arrigorriagan jokatu zan urri bigarrenaren 17an Bizkaiko eskolarteko bat-bateko finala eta finalisten artean Amaiur Atxa Areatzakoa egon zan. Irune Basagoiti Ermuakoak jantzi eban txapela.

Bertsosale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak alkarlanean antolatuten dabe eskolartekoa. Aurten 27 parte hartzaile egon dira bat-bateko txapelketan eta zortzi heldu ziran finalera. Bat-bateko finalean Igor Menika Arantzazukoa ibili zan aurkezle beharretan.

Idatzizkoa online

Aurten idatzizko txapelketea online egin dabe Bizkaiko gazteak. Guztira 97 parte hartzaile egon dira eta sarituen artean Arratiako sei dagoz. Holan, 2008an jaiotakoan kategorian, Imanol Kanaletxebarria izan zan txapel-

izango dira bertsoak kantetan. Tramagileak Lilibertso bertso-eskolako kideak izango dira.

Bertso saio musikatuak emon eutsan hasikerea zirkuituari urri bigarrenaren 24an, Mungian.

Estiballes abenduan Getxon

Igorrenkoaren hurrengoko hitzordua, Durangoko Plateruena antzokian izango da zemendiaren 28an. Han, sariketea jokatu da. Oihana Bartra, Irune Basagoiti, Ander Elortegi, Onintza Enbeita, Xabat Gallettebeitia eta Imanol Uria izango dira saioko bertsolariak.

Zirkuituari amaiera emoteko, abenduaren 20an, Bizkaiko zortzi txapelkun batuko dira Getxoko Muxikebarri antzokian. Han izango dira, Arkaitz Estiballes, Igor Elortza, Jon Enbeita, Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Xabi Paya eta Unai Iturriaga.

Saio guztietarako sarrerak bertsosarrerak.eus webgunean dagoz salgai.

BFA eta udalen laguntzeagaz

Zirkuituak, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa dauka, baita saioak egingo diran udalen laguntzea be. Ione Narbaiza Bizkaiko Bertsosale Elkarte koordina-tzaileak, Xabier Arauzo BFAko Euskara zuzendariak eta Joseba Etxebarria Bizkaiko Bertsosale Elkarte ko Talde Antolatzaileko kideak aurkeztu eben zirkuitua urri bigarrenaren 20an.

Dimakoak hirugarren saria eroan eban. 2005etik 2002ra jaiotakoan kategorian, Aner Zuluaga Igorrenkoak hirugarren egin eban.

Sari banaketea Arratia Institutuan egin zan urri bigarrenaren 30ean, eguerdian. Galder Olibares irakasleak aurkeztu eban banaketea eta Gurutze Barainka, Arratia Institutuko zuzendariak, Illart Gumuzio, Igorrenko alkateak, Josu Gorospe, Dimako alkateak eta Yazmina Beobide Areatzako zinegotziak banandu ebezan garaikurrak.



LEHIAKETEAK

Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketea

Literatura erotikoa, literatura bezain zaharra da. Gizakiok beti izan dogu sensualidadea, amodioa eta barruko sentimentu eta grinak azaltzeko beharra.

Erredakzioa

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketea, Euskal Herrian genero honeri dedikatutako lehiaketa bakarra da, eta Euskal Herrian edo Euskal Herritik kanpo euskaraz idazten dauan jente guztiarengana heltzeko boka-zinoagaz antolatzen dau Zertu Kultur Elkarteak.

Lehiaketa hau, Basauri eta Dimako ipuin erotikoen lehiaketan

oinorde eta segidea da. Zertu Kultur Elkarteak, Arratiako udalakaz alkarlanean, hartu eban bere gain 2019an antolatzeko ardurea eta bigarren edizioa martxan dago.

Lanak zehazkiaren 30era arte bialdu daitezke beginu@topagunea.com helbidera. Hiru sari emongo dira, irabazleak 600 euro jasoko ditu; bigarrenak 400, eta Arratiako ipuinik onenak be saria eukiko dau, 250 eurokoa.

Sari banaketea erotismoa gaitzat izango dauan kultura ekitaldi bategaz batera egingo da Lemoako Kulturgunean, Gabonen bueltan.

Igaz, Ernesto Prat Urzainki nafarrak irabazi eban lehiaketea *Sokada baten hiru muturrak* lanagaz. Hamazazpi narrazio lehiatu ziran, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik bialdutakoak. Hamabi gizonak eta bost andrak hartu eban parte; gazteenak 22 urte zituen eta zaharrenak 72.

Sexualidadea modu desbardinan bizi izaten dau belaunaldi bakotxak. Unibersala izanda be, sasoiak sasoiak be bada; testuinguru batean egiten dira harremanak, eta gizarteak baldintzatzen ditu. Erotismoaren agerpen hutsetik harago, sexu-generoen gaineko ikuspuntua emoteko literatura genero egokia da literatura erotikoa; ondoezak eta plazer ezkuatuak argitaratu aterateko ezin hobea.

Euskal literaturan txokotxo bat badauka literatura erotikoa eta Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketeak, udagoien honetan, euskal literaturearen tenperatura igotera animau gura zaitue zuon narrazioakaz. Garai latzak dira eta literatura inoz baino beharrezkoagoa. Mundua hain hotz dagoenean, fantasia beroak folio zurian istorio bihurtzea baino plan hoberik eta?

KULTUREA

Igorre, Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina

Abenduaren 9ra arte, martxan dago Igorren, Irakurri, gozatu eta oparitu Topagunearen kanpaina, euskeraz irakurtea bultzatzeko.

Erredakzioa

Irakurleak, udal liburutegian liburu bat hartu eta irakurri, fitxa bat bete eta liburu horren zozketan parte hartuko dau, liburu hori lagun bateri oparitzeko. Zozketea, egitasmoa amaitzean egingo da parte hartzaile guztien artean eta irakurritako liburu helduko jako etxera irabazleari, liburu lagunari oparitu deion.

Mezua lagunari

Askotan gertatzen da, liburu ba-

tek ezetuten dogun persona bat dakargula gogora. Irakurritako liburu hori persona horri oparitzea da Irakurri, gozatu eta oparitu kanpainearen asmoa. Holan, irakurritako liburu hori oparitu pentsau ondoren, liburu liburutegira bueltau eta fitxa beteteaz batera, mezu bat idatzi behar jako, tokau ezker, liburu opari izango dauan lagunari. Herri guztietako fitxak jasotean, liburu zozketea egingo da eta irabazleak etxean jasoko dabe oparitu gura daben liburu hori, mezua itsatsita, oparitzeko prest.



DUNBA

Arimen gaua

Zeanuriko eskolako 5. mailako ikasleak

Zeanuriko 5. mailako ikasleak gara eta laster Arimen gaua ospatuko dogula konturatu gara. Horregaitik, informazio apur bat eta ideak itxi gura deusueguz, aurtun modu berezian be ospatu dagizuen.

1. Zer da Arimen gaua?

Domusantu bezperan, urri bigarrenaren 31n ospatzen dan arimen aldeko jai berezia da. Herrialde bakotxean modu desbardinan ospatzen dabe, izena be aldatuz.

2. Antxina, zelan ospatzen zan Zeanurin?

Gaur egungo gehienontzat harrigarria bada be, 1950. hamarkadara arte, gixtienez, gure herrietan bizirik iraun eban ohiturea izan zan. Orduko denporetan, gazteak errosarioritik urtetan ziran herriko nagusiai txantxak egiteko, eta bildurtzeko.

Horretarako, kalabaza handi bat so-loan hartu eta hustu, begiak, ahoa eta surra egin, kandela bat barruan sartuta biztu eta kale estu eta ilunean jartzen eban, etxera bidean joiazan herritarrek bildurtzeko.

3. Gaur egun Arimen gaua Zeanurin

Urteak dira Zeanurin Arimen gau berezia ospatzen dala. Azken urteotan, herriko talde batek lan boluntarioa egiten dau, herriko umeak antxinako ohiturak mantentidu dagiezan. Hau da guretzat prestatu dabenaren laburpena:

Plazatik hur dagoan tunel txiki bat apaintzen da, kobazulo baten antza hartuz; armiarna sareak, apaingarri baltzak, motozerrak eta antzeko tresnak, behe-lainoa edo kea, hormetan odola... Gu kobazulo horretan sartu eta barruan bildurra pasau eta sustu batzuk hartu ondoren, urtetean gozokiak emoten deuskuez.

Horretaz aparte, herriko beste gune batean, krep-ak eta berakatzopa gozoa egoten da dastatzeko. Gainera argazkiak aterateko gune bat be badago, gure mozorroak



erakusteko.

Gauaren amaierarantza, alkar-teko kideak bideo eta pelikula bildurgarriak ipinten ditue alkarte-ko gelan eta gura dauanak jantza egiteko aukerea izaten dau herriko plazan.

4. Aurtengo egoera

Aurretik kontau dogunaz gainera, normalean gozokiak eskatzera joaten gara etxex etxe baina aurtun ezingo dogu betikoa egin, pande-

mia dala eta ekintza asko bertan behera geratu diralako. Ha-ta guzti be, Arimen gaua beti gogoan izango dogu eta bakotxak ahal dauan moduan ospatzera animetan dogu. Horretarako, oin idea batzuk aurkeztuko deusueguz, zuen etxe eta auzoan ahalik eta egun bereziana izan dagizuen.

5. Errezetea: "Oreo momiaren piruleta"

Osagaiak: urtu daiteken txokolate



zuria, Oreo edo antzeko gailetak, piruleta edo egurrezko pintxo-makilak eta azukrezko begiak.

Prestaketea: Gailetak erditik ireki eta urtutako txokolate zuri apur bategaz piruleta makila edo pintxoaren itsasten dogu. Gailetak barriz alkatu, hozten itxi eta piruleta bakotxa txokolate zuriz estali behar da. Amaitzeko, urtutako txokolate zuri apur bategaz mamuari ahoa egin eta azukrezko begiak jarri. On egin!

6. Esakerak Zeanurin

"Saria edo ziria".

"Xanduli, manduli, kikiriki, eman gozokiak guri...".

7. Esaldiak beste herrialdeetan

Ameriketan: "Trick-or-treat".

Espanian: "Truco o trato".

Mexiko: "¿Me da calaverita?".

AGENDEA

**ZEMENDIAK 3
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, asteleheneetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

ARRATIA

Hilaren 30era arte, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketara lanak bialtzeko epea, *begitu@topagunea.com* helbidera.

Norbanakoak Euskaraldian izena emoteko epea zabalik. *www.euskaraldia.eus* helbidean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, zementiaren 13ra arte, izena emoteko epea zabalik Bediako Euskaraldian parte hartzeako. Liburutegian.

DIMA

Hilaren 9ra arte, 14 eta 18 urte bitarteko neskenentzako *Autodefensa feminista* ikastaroan izen emotea *andraizea@gmail.com* helbidean.

IGORRE

Zementiaren 8ra arte, Ertibil erakusketa ibiltaria Kultur Etxean.

Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo *liburu.igorre@gmail.com* helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

Abenduaren 9ra arte, Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina. Liburutegian euskerazko liburu bat mailegutan hartu, irakurri, fitxa bete eta zozketan parte hartu.

LEMOA

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, asteleheneetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturgunean. Liburuak mailegutan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

Abendura arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukerea. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Lemoako herria taldean. Kakoa: 204F9E. Esteka: <https://eguneanbehin.app/link/1KH1d9SW5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Lemoan errolatuta egon behar da.

ZEANURI

18:00etan, martitzen, kakorrazetan, 30x30 cm-ko txatal more eta gorriak egiten. Zementiaren

10ean josiko dira txatalok, zapi bat egiteko, andran kontrako biolentzia matxistea salatuteko. Eguzkiolan.

ZEBERIO

Norbanakoak Euskaraldian izena emoteko epea zabalik. *www.euskaraldia.eus* helbidean edo udaletxean.

#Indarkeria Matxistaren Aurka Lehiaketea. Hilaren 20ra arte. Lanak udaletxean entregatu behar dira. Oinarriak *www.zeberio.net* webgunean.

ZEMENDIAK 4**ARTEA**

18:00etan, Roberto Aguadoren berbaldia *Educar con gestión emocional*. Eleizan.

LEMOA

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

16:30etik 17:30era, eguazten guztietan, 3. adinekoentzako jarduera fisikoa doban kiroldegian. Izen emotea 688 661 477 telefonoan.

ZEMENDIAK 5**AREATZA**

16:00etatik 19:00etara, Euskaraldirako izen emote presentziala udaletxeko arkupetan.

IGORRE

17:00etatik 20:00etara, Euskaraldian izena emon dauanak txapa batzeako aukerea Kultur Etxeko plazan.

20:00etan, zinekluba, *Lazzaro felice* filma Lasarte Aretoan. Doban.

**LEMOA**

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

18:30ean, Eva Perez-Ponsek idatzitako *Zaharkitze programatua* liburuaren aurkezpena eta poesia errezitaldia. Liburutegian. Izena hilaren 4ra arte emon ahal da, *www.lemoa.net* helbidean.

ZEMENDIAK 6**AREATZA**

18:00etatik 21:30era, Euskaraldirako izen emote presentziala udaletxeko arkupetan.

DIMA

19:00etan, *Comeme la flor* liburuaren aurkezpena Abaroa aretoan.

IGORRE

17:00etatik 20:00etara, Euskaraldian izena emon dauanak txapa batzeako aukerea Kultur Etxeko plazan.

21:00etan, Vinagre de Moderna taldearen kontzertua Kiñu Gaztetxean. 20:00etan, atek zabaldu.

ZEMENDIAK 7**AREATZA**

12:30etik 14:30era, Euskaraldirako izen emote presentziala udaletxeko arkupetan.

ZEMENDIAK 8**IGORRE**

17:00etan, zinea *Koko dragoi bakia oihanean*; 19:30ean, *Akelarre* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etatik 15:00etara, hurreko produktuen merkadua Atxeta plazan.

ZEMENDIAK 10**ZEBERIO**

08:00etatik 14:00ak arte, traktoreen IAT azterketak Zubialdeko aparkalekuan. Izena alde aurretik emon 94 671 17 13 telefonoan. Azterketa bakotxa 42,14 euro da. Diru justua eroatea eskatu dabe Udaletik.

ZEMENDIAK 11**LEMOA**

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

16:30etik 17:30era, eguazten guztietan, 3. adinekoentzako jarduera fisikoa doban kiroldegian. Izen emotea 688 661 477 telefonoan.

ZEMENDIAK 12**IGORRE**

17:00etatik 20:00etara, Euskaraldian izena emon dauanak txapa batzeako aukerea Kultur Etxeko plazan.

LEMOA

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

17:30ean, 4 eta 12 urte bitartekoentzat, *Amarru* ikuskizuna Tor magoagaz Ludotekan. Izena hilaren 9ra arte emon ahal da, *www.lemoa.net* helbidean.

ZEMENDIAK 13**IGORRE**

17:00etatik 20:00etara, Euskaraldian izena emon dauanak txapa batzeako aukerea Kultur Etxeko plazan.

ZEMENDIAK 14**IGORRE**

19:00etan, Koplak barik bertso zirkuituko bertso trama saioa. Bertsolariak: Eneko Abasolo "Abarkas", Txaber Altube, Miren Amuriza, Julen Arzanegi, Unai Mendiburu eta Jone Uria. Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, Tranbia solidarioa ekitaldia eta Esti eta Olatzen kantaldia frontoian.

ZEMENDIAK 15**AREATZA**

Parkeak eta Laminok antolatuta, Orozko-Sarria ibilbidea (zailtasun handikoa). Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

IGORRE

17:00etan, zinea *Mina y el mundo de los sueños*; 19:30ean, *Falling* Lasarte Aretoan.

ZEMENDIAK 16**LEMOA**

Hilaren 22ra arte, Lemoako Kirol eta Ariketa Fisikoaren Asteko I. Argazki Lehiaketea. Argazkiak *www.lemoa.net* webgunetik bialdu.

**Ametsen urtebetetzea umeentzako ikuskizun musikala hilaren 14an Lemoan**

Kantu Kolore taldearen *Ametsen urtebetetzea* filma ikusteko aukerea egongo da zementiaren 14an, Lemoako kiroldegian, 18:00etan. Izena, zementiaren 8ra arte emon ahal da *www.lemoa.net* udal webgunean.

Kantu Kolorekoak, euren kantuetako bideoklipak batu eta 50 minutuko pelikulea egin dabe.

Hori da *Ametsen urtebetetzea*, umeentzako ikuskizun musikala.

Sinopsia

Ametsen urtebetetze eguna da eta bere lagunak ezusteko festa bat prestatu deusie. Amets bere urtebetetzea ahaztu dabelakoan dago, baina azkenean berak emongo deutse lagunai ezustekoa, bere sekreturik ezkuetuen kontatzean.

Arrebasio Harri lasterretxoak
Gure
ikastetxeak
Euskaralduna
kalidazkoak
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areartzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA ALOKAIKUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean. Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Institutuko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, marrazketa tekniko, teknologia... klaseak eskaintzen dira. Informazio gehiagorako deitu 608 381 984 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Akelarre* filmarako.

Amaia Mintegi (Igorre)
Igor Torrontegi (Dima)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
señ
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERBITZUA
609421222
IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

Dia %
PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TEL. 94 631 92 00

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukanduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

 **Smurfit Kappa**
CENTRAL FORESTAL


1967-2017

Central Forestal (Smurfit Kappa), “la papelera”, ibilbide luzeko enpresa gara, eta basogintzan kaudimen handia dugu.

Koniferetako egur mota guztiak erosteko interesa dugu (apeak eta zerrarako zurgaiak), zutik zein botata, baita entresaka zein matarrasetan ere.

Egurra saltzekotan bazabiltza, zalantzarik gabe jar zaitez harremanetan Eukenerekin, **669 41 97 68** telefonoan, atsegin handiz bisitatuko zaitu eta gure eskaintzarik onena prestatuko dizu.

eukene.oarbeascoa@smurfitkappa.es



www.smurfitkappa.com